

**CEBEK-en BATZARRAREN AMAIERA
CLAUSURA ASAMBLEA DE CEBEK**

2024-05-08 Palacio Euskalduna 08-05-2024

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Bizkaiko Ahaldu Nagusi andrea, Bilboko alkate jauna, sailburu andrea, foru diputatu andrea, herri agintari eta herri ordezkariok, baita SEA, ADEGI, CONFEBASK-eko buruak, eta gaur bereziki CEBEK-eko arduradun eta lagunok, jaun-andreok, egun on!

Eskerrik asko itxiera ekitaldi honetara gonbidatzeagatik eta parte hartzeko aukera emateagatik. Plazerra da niretzat hemen egotea.

Lehenik eta behin, zorionak enpresa sarituei! Zorionak, Bilbao Truck, Oreka, Arteche eta Histocell-i! Merezitako saria lortu duzue!

Dakizuenez, Lehendakari bezala azkenekoz parte hartzen ari naiz ekitaldi askotan. Hau ere, CEBEK-en Ohiko Batzar Nagusiaren azken itxiera ekitaldia izango da niretzat. Bada, aukera ezin hobea iruditzen zait urteotako balantze labur bat egiteko eta, baita, nola ez, zuei guztiei eskerrak emateko. Uste dut urte hauetan guztietan lankidetzaz zintzoa aurrera eramateko gai izan garela. Eskerrik asko, bihotz-bihotzez!

Atzera begiratuta, seguru nago diagnostiko bera partekatzen dugula: Gure herriak ez ditu urte errazak bizi izan. Krisiak bata bestearen atzean pilatu zaizkigu, amets-gaiztoak izango balira bezala. 2008ko krisi ekonomiko eta finantzarioa, Errefuxiatuena, Energia- eta erregaiena, Pandemia, Brexit-a, Ukrainaren inbasioa, Inflazioa eta interes-tasen igoera, Hamas eta Israelgo Gobernuaren arteko gerra...

Krisien zurrumbilo amaigabe horren aurrean bi aukera izan ditugu herri bezala: amore eman edo arazoei aurre egin. Bigarren aukeraren aldeko apustua egin dugu. Eta aurrera atera gara pixkanaka.

Los datos demuestran que lejos de retroceder, Euskadi ha crecido en plena adversidad:

- Más de 1.013.000 personas trabajan y cotizan en la actualidad... más que nunca...
- La renta media por persona es 36.000 euros... por encima de la media europea...
- El Paro Juvenil ha descendido del 30 al 10% en estos diez últimos años...
- La creación de empresas es la más elevada en diez años...
- La industria y servicios avanzados suponen un 40% de nuestro PIB, en la media de Europa... y,
- Exportamos por valor de 32 mil millones de euros... más que nunca...

Todo esto ha sido también gracias al compromiso de las personas emprendedoras... gracias al esfuerzo compartido. Pero... ¿significa esto que el trabajo está hecho? No, claro que no. Euskadi enfrenta hoy importantes retos. Retos que nos exigirán el máximo.

Debemos seguir invirtiendo e innovando, creando cada día más y mejores empleos, con más y mejores condiciones laborales, realizar una transición energética justa que garantice la competitividad de nuestras empresas y dar pasos decididos hacia la descarbonización de nuestro tejido industrial, adaptarnos a las oportunidades que nos ofrece la nueva economía y, por supuesto, encarar el reto de la digitalización...

No me olvido de la necesidad de seguir fomentando el 'modelo inclusivo participativo de empresa' que tan buenos resultados nos está aportando. Todo eso y mucho más será a lo que como país deberemos hacer frente y estoy seguro que las empresas de Euskadi también estarán a la altura de las circunstancias.

Nuestro país necesita contar con un tejido industrial fuerte, que crezca día a día. Porque sin él no será posible mantener nuestros servicios públicos y nuestra calidad de vida.

Azken urte hauek erakutsi digute ziurgabetasuna dela segurutzat eman dezakegun gauza bakarra. Eta ziurgabetasun horretan hazten jakin beharko dugu, elkarlanean. Lan gogorraren eta ahaleginaren bitartez posiblea dela erakutsi dugu eta seguru naiz etorkizunean ere hori bera egiten asmatuko dugula.

Berriz, eskerrik asko urte hauetako ibilbidea gurekin batera partekatzeagatik eta zorterik onena opa dizuet. Zuen arrakasta gurea guztiona ere izango delako.

Egun ona izan eta zorionak urte askotarako!